

# Kutxabank Plus 4 Pentsio Fondoa

## Inbertsio-politika

### I) PENTISIO-FONDOEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Pentsio Planei eta Fondoei buruzko araudiarekin bat etorrira, inbertsio-politikaren printzipioei buruzko adierazpen ulergarri bat egingo da idatziz.

Pentsio-fondoaren inbertsioak, haien inbertsio-politika edozein dela ere, merkatuen gorabeheren eta balioetan inbertitzearen berezko beste arrisku batzuen mende daude. Hortaz, partaideak jakin behar du partaidetzaren kitapen-balioak goranzko nahiz beheranzko joera izan dezakeela.

Fondoaren zorroaren osaera xehatua seihileko txostenetan kontsulta daiteke.

### II) PENTISIO-FONDOA IDENTIFIKATZEKO DATUAK.

Kudeatzailea: KUTXABANK PENSIONES, S.A.U.  
Gordailuzaina: KUTXABANK, S.A.  
Auditorea: PriceWaterhouseCoopers Auditores, S.L.

### III) PENTISIO-FONDOAREN INBERTSIO-POLITIKA.

#### a) Fondoaren bokazioa.

Fondoa Errenta Finkoko Fondo modura eratzen da.

#### b) Kudeaketa-helburua.

Fondoaren inbertsio-politikaren helburua partaidetza bakoitzarentzat balio jakin bat lortzea izango da, aurretik finkatutako denbora-tarte batean. Nolanahi ere, partaideak lortuko duen errentagarritasuna partaidetza bakoitzak sinatutako likidaziozko balioaren menpe egongo da.

#### c) Inbertsioak estrategikoki aukeratzeko eta banatzeko irizpideak.

Fondoak, hain justu, Europar Batasunean kaudimen handiko jaulkitzaileek jaulkitako errenta finkoko titulu publiko zein pribatuetan inbertituko du bere ondarearen zati handiena.

Fondoaren ondarea osatuko duten errenta finkoko tituluak Europar Batasuneko herrialdeetako merkatu antolatuetan kotizatuko dute.

Errenta finkoko aktiboak estrategikoki kokatuko dira, kudeaketa-helburuarekin koherentziaz jokatuta.

Fondoak, aukera eta interesa dagoen guztietan, bere ondarearen zati bat inbertituko du Europar Batasuneko Estatu-kideren batek, Autonomia Erkidegoek, Espainia kide den Nazioarteko Erakundeek eta ELGako beste Estatu-kide batzuek jaulkitako baloreetan.

#### d) Inbertsioen berezko arriskuak eta horien neurketa eta kontrola.

Errenta finkoko zorroa osatuko duten tituluak igorriko dituzten erakundearen ratinga ez da izango investment grade baino txikiagoa edo Espainiako Erreinuak baino txikiagoa, hura txikiagoa izanez gero. Nolanahi ere, dagokion aktiboa eskuratu ondoren izandako rating aldaketek ez dute nahitaez haren salmenta ekarriko; Erakunde Kudeatzaileak azkar aztertuko ditu ratinga murriztea eragin duten baldintzak, beste finantza-hornitzaile edo beste merkatu-adierazle batzuekin egiaztatuta, eta, hala badagokio, hura saltzea edo hari eustea komeni den balioetsiko du, fondoaren ondarea ahal bezain beste babesteari begira.

Modu gehigarrian, xedatutakotik beherako rating tituluak eskuratu ahal izango dira, baldin eta kaudimen-baldintzei buruzko araudi espezifikoak betetzen bada, eta, betiere, indarrean dagoen legediak xedatutako mugekin bat etorrira, eta era honetako aktiboek Planaren zorroaren % 10 baino gehiago osatu gabe.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak erregulartasunez zainduko dute fondoaren inbertsioen ratinga, baita arrisku-diferentzial edo spreads deitutako bilakaera ere.

Errenta finkoko aktiboetan inbertitzeak interes-tasaren arriskua ekarriko du berarekin.

**e) Urtean espero den errentagarritasun-helburua, Kutxabank Plus 4 Pentsio Planeko partaideentzat.**

Kutxabank Plus 4 planaren errentagarritasun-helburu bermatu gabea hauxe izango da: finkatutako aldiaren amaieran (2019ko uztailaren 30ean) aldi horren hasieran (2014ko urtarrilaren 17a) partaidetzak zuen balioaren gainean % 14,64ko (% 2,50eko UTB) preziamendua lortzeko xedea duen inbertsio-politika bat garatzea.

**f) Inbertsio-politikaren indarraldia.**

Inbertsio-politika hau indarrean egongo da 2019ko uztailaren 30era arte.